

CEDROREN MANIFESTUA **ADIMEN ARTIFIZIALARI BURUZ**



Adimen artifizial sortzailea (AAS) teknologiaren bidez, erabiltzaileek nahieran ekoitz ditzakete testuak, irudiak, soinu-edukiak eta ikus-entzunezkoak, askotariko iturriak prozesatuz. Konputazio-sistema hori etengabe ari da bilakatzen, bai informazioa tratatzeko ahalmenari dagokionez bai haren funtzionamenduaren oinarri diren algoritmoak optimizatzeari dagokionez.

Teknologia hori egoki erabiltzeak abantaila asko dakartza. Baina hari buruzko erregulaziorik ezak eta AASaren aplikazio desegokiak **kalteak ere eragin diezazkioke gure gizarteari** arlo askotan: osasun demokratikoan, pentsamendu kritikoan, informazioaren egiazkotasunean, jabetza intelektualean, kultura- eta hizkuntza-aniztasunean eta pribatutasunean, besteak beste.

Ezdalehenaldia beren produktuei balioa gehitzearren egile-eskubideez babestutako edukiak baliatzen dituzten zerbitzu eta plataforma berriek eragindako **aldaketa teknologikoak bizi dituguna**. Hori dela-eta, jakitun garen arren Europar gai honi buruzko lege bat lantzen ari direla, **egile eta editoreek alderdi politikoei eskatu nahi diegu erregula dezatela arlo hau, gure sorkuntzen gaineko jabetza intelektuala eta AASaren neutraltasuna bermatzeko**, baliabide hori garatzean eta aplikatzean hura egoki erabiltzen dela egiaztatzeko, eta haren emaitzetan inolako isuri, diskriminazio edo oinarritzko eskubideen urraketarik izan dadin eragozteko.

Arautegiak mesede egingo lioke eduki editorialen jasangarritasunari, honako esparru hauek finkatuz gero, betiere:

- **Esparru etiko eta araubidezko bat**, editorialak sendotuko dituena eta herritarrei kultura, informazio eta hezkuntzarako sarbidea bermatuko diena, jabetza intelektualeko eskubideen errespetuan oinarriturik.
- **Esparru teknologiko gardena eta segurua** egile, editore eta gainerako sortzaileentzat nahiz gizartearentzat, oro har, datuen babesari, pribatutasunari, ingurumenari, osasun mentalari eta kompetentzia digitalei dagokienez.
- **Esparru linguistiko integrala**, sorkuntza kulturala estatuko hizkuntza ofizial guztietan sustatzeko.

Esparru horiek araututa, edukiak sortzeko eta hedatzeko aliatu etikoa litzateke AASa egile eta editoreentzat. Izan ere, egileen bizi-esperientziak eta balio pertsonal eta etikoek sorkuntza prozesuari atxikitzen dioten giza originaltasuna errespetatuko litzateke, ekoizpena erreferentzia hutsetan oinarritu ordez. **Horrela soilik babestu ahal izango ditugu egile eta editoreen jabetza intelektuala** eta, azken batean, **gure kultura**.

Madriren, 2023ko urriaren 16an